

Liburutegi Legea hitzartu dute Eusko Legebiltzarrean

Erredakzioa. Gasteiz

Euskadiko Liburutegia sortzeko eta liburutegi sistema eta irakurketa sare publikoa antolatzeko helburuak ditu Euskadiko Liburutegi Legeak. Eusko Legebiltzarreko batzorde txostengilean adostu dute, eta irizpenaren zain geratu da. Batzordeak berak gauzatuko du hori uda ostean, eta udazkenean lege egitasmoa eztabaidatuko dute osoko bilkuran, onartzeko bidean.

Eusko Jaurlaritza osatzen duten hiru talde parlamentarioen babesaz gain, PSE-EEren, Ezker Abertzalea legebiltzar taldearen, Aralarren eta PPren zuzenketak onartu edo transatu dituzte.

KUDEAKETA EGUNERATU. Lege honekin liburutegien alorreko ordenamendu juridikoa eguneratu eta, aldi berean, osatu nahi da, hala kontzeptuen alorrean nola antolaketa, kudeaketa eta plangintzarenean.

Kulturaren Euskal Planaren eztabaida eta hausnarketetan aurreikusitako beharrak betetzeko baliatu nahi dute lege berria. Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazi duenez, gure bibliografia ondarea eta liburutegiak arautzeko erabiliko da legea, baita Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala sortuz, euskal liburutegi sistema propio baten oinarriak jartzeko ere.